

Denek dute tokia festetan

Xanisteban Festak abuztuaren 2an hasiko dira. Lau hilabeteko lana egin du jai batzordeak herritar guztiek egitarauan txokoren bat izan dezaten · 27-37

OSTIRALA, 2024ko UZTAILAREN 19a

Xanistebanak

2024
OIARTZUN

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 www.goieko.com

Xanistebanak
gozatu!

Abuztuko erabateko festa giroa, Oiartzunen

Aurten ostiralarekin hasiko dira xanistebanak. Jai batzordea osatzen duten eragileek 86 ekitaldi antolatu dituzte festetarako, eta giroa iraunkorra izango da.

ERIK GARTZIA EGAÑA

I txaronaldi luzeagoa izan da aurten, otsailaren 29a tartean sartu baita 2024. urte honetan. Edozein modutan: festa giroa sumatzen da Oiartzunen, Iturriozko festak direlako. Horrek esanahi argia du: xanistebanak hurbil daude. Aste-bete besterik ez da falta herriko festa nagusiak has daitezen. Datorren ostiralean, Oiartzungo *kalea* pixka bat Karrika izango da, auzo horretako Artaso elkarteak izango baitu zerua lehertarazteko ohorea. Mende erdia bete du


Adin guztietako oiartzuar eta bisitariak gozaten dute Xanistebanetan.

Alaine Aranburu

aurten Karrikako elkarteak, eta xanistebanetako ekitaldi jendetsuenetako bat antolatzen dutenei aitortza egingo diete modu horretan.

Xanistebanetako Jai Batzordeak iaz baino bi ekitaldi gutxiago findu ditu, baina, hala ere, ez zaie egitarau makala atera: abuztuaren 2tik 6rako tartean 86 ekitaldi programatu dituzte. Ekitaldi gehien izango dituen eguna tartean geratzen dena izango da: 31 jarduera proposatuko dituzte abuztuaren 4an.

Lehenagorako hainbat ekitaldi presatatu dituzte. Hilaren 31ko 10:30ean, Oiarpek antolatzen duen haurren esku huskako pilota txapelketaren finala



Lorez lore, festa eta kolore!

www.pachecoizetaloreak.com
943 49 18 68
MAMUT merkatalgunea
Oiartzun



Tabakoa, loteria eta opariak

Gora xanistebanak!

Tel.: 943 49 16 11 - Doneztebe plaza, 11. OIARTZUN



Aiton-Etxe
EGUNEKO ZENTROA

Gora xanistebanak!

ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aifonetxe.com



talde, etxe horren areto balioaniztuan Heltako ikasleen pintura lanak ikusi ahal izango dira abuztuaren 9ra arte, egunero. Ez da erakusketa bakarra izango: abuztuaren 2an, 5ean eta 6an kartel lehiaketara aurkeztutakoak ikusi ahal izango dira Manuel Lekuona bibliotekako beheko solairuan.

Festak, denentzako

Abuztuaren 2an, festa hasi aurretik, musikariek auzoak girotuko dituzte, eta udal ordezkarien eta omenduen sokadantzak plaza hartuko du festa lehertu baino ordu erdi lehenago. Ez-tandaren ondoren, klasiko diren ekitaldiak etorriko dira, eta musikak beteko ditu herriko txokoak gau partean. Eguzkiaren izpiek lehenengo gaua garaitzean, AIAK lapikoan prestatuko duen gosari beganoa eskainiko die beren lana gogor egin duten *gaupasero* nekaturiei.

Egitarauak ohiko ekitaldiak eskainiko ditu: bazkariak, musika, dantza, sagardo eta pintxo dastaketak, erraldoi

eta buruhandien desfilea, haurrentzako jolasak... Barrakak dira haurrek festetik gehien maite dituztenak. Gurasoak lasai egon daitezela: aurten ere prezio herrikoiak izango dituzte. Bidaia bakoitza 2 euroan eskura daiteke, eta dozena erdiko sorta 9 euroan. Gainera, egunero, 17:00etatik 18:00etara barraketako musika itzaliko dute, guztiek haiekin gozatzeko aukera izan dezaten.

Herriko festetara auzoetako oiar-tzuarrak iristen laguntzeko Xorrolaren zerbitzua izango da gauero. Anbulatorioko eta Yon Oñatibia kaleko geltokiak bibliotekara pasatuko dira, eta bertatik aterako da herri barruko autobusa, gauetan: 00:00etan izango da lehenengoa, eta 06:00etan, azkena. Gurutze, Ergoien, Altzibar, Karrika, Iturriotz, Ibarre, Pikabene, Intxixu, Arragua eta Mendin izango dira geltokiak.

Xanistebanetako azkeneko ekitaldia —ofiziala, behintzat— Puro Relajoren kontzertua izango da. Ordura arte, erabateko festa nagusituko da Oiartzunen. Bada non eta zer gozatua. ■

izango da. Eskuzko pasakako txapelketa herrikoiko finalak, berriz, abuztuaren lehen egunean jokatu dituzte, 18:30ean hasita. Kontzejupean izango dira bi finalak.

Harri Beltza elkartearen kontzertuak 28. aldiz esango du «Xanistebanak badatoz». Landarbasoko Dizdizka abesbatzak kantaldia eskainiko du San Inazio Egunean, parrokan, 19:30etik aurrera. Egun berean, Oiartzungo Gazte Sartzailak (Orgasmok) beraiek sortutako *Zorioneko* antzezlanaren bi pase taularatuko dituzte Landetxen, 17:00etan eta 22:00etan.

Kultur kontuekin jarraituta, abuztuaren 1ean *Oiartzun 2024* urtekaria aurkeztuko dute Arizmendieneko lorategian, eta aipamena merezi duten oiartzuarrei aitortza egingo diete. Bes-

Ongi pasa xanistebanetan!

ITZIAR USABIAGA ARANA
Tel.: 943 49 44 14 669 56 78 58
iusabia@mapfre.com
Mendiburu, 4 behea OIARTZUN

Ongi pasa xanistebanek!

Anitzelena

bitxidenda
Mamut merkatalgunea - Oiartzun - 943 49 31 84

Ondo pasa Xanistebanetan!

Xanistebanetan!

Parte hartu gure ekintzetan eta bisita gaitzazu ikastolako txosnan!

Artaso elkarte, mende erdiz auzolanean

Orain dela 50 urte sortu zuten Artaso elkarte, Karrikan. Herriari eman dioten guztiak aitortza jaso du, jai batzordeak txupina botatzeko ardura esleitu baitio.

ERIK GARTZIA EGAÑA

Artaso elkarte lanpetuta egoten dira uztailean. Auzoko festak zein xanistebanetako ekitaldiak prestatzen aritzen dira, herriko festetan presentzia handia baitute. Aurten beraiei esleitu diete txupina botatzeko ohorea, 50 urte bete baitira elkarte sortu zenetik. «Estatutuak osatu zirenetik 50 urte», zehaztu du Jose Ignacio Berasarte *Rubio*-k, «lanak lehenago hasi zirelako, nire izen bera zuten Lezoko abokatu batekin». Berekin batera daude Juan Joxe Mitxelena lehendakaria, Joxe Leonet eta Pili Arbelaitz; laurek jarraitzen dute hasieratik, Mari Jose Belokirekin batera. Pako Mitxelenak osatzen du boskotea. Leonetek gogorarazi duenez, auzoan bazegoen mugimendu kultural bat, dantza talde eta guzti; aterpe baten beharra sentitu zuten gazteek. «Hau lintzura bat zen», gogorarazi du elkarte egungo presidentek. «Goitik beherako auzolan» gisa definitu du Artasorena: «Basoa botatzeko edo pareta altxatzeko, batetik edo bestetik agertzen zen jendea».

Poliki joan ziren, olentzeroetan, santagedatan edo urtezaharretan bildutako diru pizarrekin; biltzen zutena «hondar eta porlanean» gastatzen zuten. Zimentazio lanak egiteko Arraskuko idi-parea erabiltzen zuten, harriak eramateko, Leoneten aitak sies-ta egiten omen zuenean jaitsitakoak. Larraldapako Guillermoren laguntza ere gogorarazi dute, elkartearen egoitzaren oinarria egiterakoan.

Aroxkeneko Maritxu Gaztelumendik jarri zuen «asteburutan» eraiki zen lokalaren lehen harria. Pixkanaka, indarra hartzen hasi zen Artaso elkarte. «Auzoan ikusten zuten bazegoela mugimendua. Behin formalizatuta, auzoko familiek bat egin zuten; ez da etxerik egon bazkiderik eduki ez duenik», esan du Leonetek. Elkartearen zebiltzan gazteen amen babesak jaso zutela nabarmendu nahi izan du elkarte-ko presidentek. «Gero, auzo guztiak sinistu zuen izango zela erreferente berria; lehen bi taberna bazeuden, eta pixkanaka hona etortzen hasi ziren barrietatik eta», jarraitu du Mitxelenak.



Artasoren egoitza handitzen joan zen, eta frontoia egitea hausnartu zuten batzarrean. Baiezkoa atera zen, eta negoziozietan hasi ziren. Pilotalekua bukatuta, gainontzeko metroak betetzeko probalekua eraiki zuten. «Zenbat barrikote antolatu genituen dirua lortzeko... Sagardotegi batean baino barrikaka gehiago genituen momentu batean. Auzolan baten indarra da, atzean 10-20 lagun badituzu laguntzeko, errazago joaten da», esan du Mitxelenak. Kirol gunea bukatzerakoan, auzoko festen epizentroa elkarte ingurura mugitu zen; bukatu ziren botilak Karrikaxabaleraino karretilan eramateko garaiak.

Lana eta transmisioa

Artasok urtean ekitaldi asko egiten ditu. Xanistebanetan, sokatira txapelketa, tiratzaileei afaria eskaintzea





edo *zimitiyoko* txosnan egiten duten txanda. Sokatira probaren ondorengo —aurtengoa, 36. ekitaldia— afariaren osteko momentua gustuko dute Artasokoek, herriko auzo guztietako 120 bat tiratzaile parranda egitera elkarrekin joaten direnean, lagun giroan.

Elkartasun Barrikotea, auzoko Olenzero eta beste hainbat ekitaldi ere antolatzen jarraitzen dute. «Transmisioa egon da, eta horrek gauzak aurrera ateratzea lagundu du. Poza ematen du guk sortu genuenak ondorena bada. 50 urteren ondoren, garai zailetan, hemen gaude», esan du Artasoko lehendakariak.

Txupina botatzeko ardura jasotzeari dagokionez, uste dute haiei eman dietela «ohore» hori herrian parte hartu dutelako, herriari «eman» diotelako. «Eskuzabalak izan gara. Gure aldetik

Artaso elkarteko kide batzuk, auzolanean altxatako elkartearen parean.

Erik Gartzia Egaña

hitz egitea erraza da, baina erantzun dugun auzoa garelako uste dugu», gaineratu du. Belaunaldi berrietan pentsamolde aldaketa eman dela uste duten arren, Artason ziurtatuta dute, egun, transmisio hori. Suziria norbaitek bota behar duela eta, ardura egungo zuzendaritzako kideen artean banatuko dute. Emakume eta gizon batek botako dute lehenengo suziria. Artason parekidetasuna «hasieratik» izan dute argi. «Oraindik eztabaida sortzen duen gaia da beste elkarte batzuetan. Guk gaitututa dugu hasieratik. Emakume eta gizonak berdinak garelako argi dago. Garai haietarako, gauza handia da», esan du Pako Mitxelenak.

Xanistebanak atzean utzita, karrikatarrantzat ez da festa giroa bukatuko. Aurten auzoko festen data nabarmen aurreratu dute: abuztuaren 9an hasiko dira. Horretarako errezeta ere eman dute: auzolana, transmisioa eta lan boluntarioa egiteko dagoen jendea. Artasoren lehenengo mende erdian gertatu den bezala. ■

Mirari Txurio
ILEAPAINDEGIA
Ongi pasa xanistebanak!
Tel.: 943 49 20 52
 Rafael Pikabea, 27
 20180 OIARTZUN

KASTRO BERRI BERRIA

Plazan, bertan.

Doneztebe Plaza 13, Oiartzun
 Asteartetan itxita

Gora Xanistebanak!

esnoiz

J A T E T X E A

gure karta  festetako menua 

 esnoiz

Zuaznabar 22 - 20180 OIARTZUN - Tel.: 943 49 30 62

«Herriko jaietako kartelaren egilea izatea pozgarria da»

MIKEL DEL VAL

IGOR SAN JOSE KARTELAREN EGILEA

Igor San Jose oiartzuarraren kartelak iragarriko ditu aurtengo xanistebanak. Kartel lehiaketak aspaldian utzita bazituen ere, aurtengoa seme-alabekin osatu du, eta prozesuaz gozatu du haiekin. Oiartzuarra izanik, ilusio handia sorrarazi dio lehiaketa irabazteak.

Zer da zuretzat xanistebanak iragartzea?

Poz handia sorrarazi dit. Oiartzuarra izanda herriko jaietako kartelaren egilea izatea pozgarria da. Ez da irabazi dudan lehen aldia izan, baina aspaldian utziak nituen lehiaketak. 1990eko hamarkadan aurkezten nintzen, eta

zenbait kartel lehiaketa irabazi nituen; baina ondoren utzi egin nituen. Xanistebanetan honakoa izan da irabazi dudana hirugarren aldia. 1996an aurkeztu nintzen lehen aldiz eta irabazi egin nuen. Bigarrena 1999an izan zen, beraz, aurtengoa 25 urte bete dira azkenekoa irabazi nuenetik, eta beste horrenbeste lehiaketak utzi nituenetik.

Nondik dator kartelaren ideia?

Ez nuen aurkezteko asmorik, baina ilusioa sorrarazten zidan, eta seme-alabek aurkezteko esaten zidaten. Badakite bi-

tan irabazi nuela, eta beti ikusten naute etxean marrazten; baina nik haiek aurkeztea nahi nuen. Esaten nien kartelak ez direla perfektuak izan behar, nire ustez azkarrak eta mugimenduz beteak izan behar baitira. Kolore asko sartzea eta bizia ematea ere funtsezkoa da. Kartel honek trazu lodiak ditu, bizia dauka, eta txupinazoaren momentua irudikatu dut, eztanda egiten dueneko.

Zein da bere esanahia? Zer irudikatu nahi izan duzu?

Txupinazoaren momentua irudikatu nahi izan dut. Seme txikiari esaten niona da indarra bilatu behar dela. Irudia ez da zuzena, txukuna edo zehaztua izan behar, momentua irudikatu behar da. Momentu hori mugimenduan dago, eta denok harrapatzen gaitu okertuta eta batuta; horregatik trazuak ez dira zuzenak, mugituta daude. Txupinazoa islatu nahi nuen, momentu horretan dena mugituta dago eta hor hasten da jai. Hori bilatu nahi nuen.

Nolakoa izan da kartela sortzeko prozesua?

Prozesua polita izan da nire seme txikiarekin egin dudalako. Hasiera batean jende gabe irudikatu nuen, eta berak esan zidan: «Aita, jende gabe dago, orduan, indarra galtzen du». Arrazoi zeukan, eta jendea sartu nuen berak esan zidalako. Beti esaten diot berak eman zidala ideia hori, eta berarekin hartuko dut saria.

Herriko ikur esanguratsu batzuk irudikatu dituzu.

Plazaren irudi bat da, txupinazoaren momentukoa. Balkoia irudikatu nahi



www.esnatu.info
ESNATU
altzariak eta elektrogailuak



Santusene Kalea 5, Oiartzun - ☎ 943 49 19 98 - info@esnatu.info



ZUBILLAGA
aholkularitza - gestoria

- FISKALA • LANA
- KONTABILITATEA
- ZIRKULAZIOA
- ESKRITURAK, HERENTZIAK
- ASEGURAK

Aialde Kalea 3, behea - 20180 Oiartzun - 943 49 18 92 - asesoria@asesoriazubillaga.eus



GIRIZIA
KULTUR ETA KIROL ELKARTEA

GOZATU EUSKARAZ ETA GIRO ONEAN HERRIKO FESTAK



**GORA XANISTEBANAK!
GORA OIARTZUN!**

nuen, baina ez nuen erakutsi nahi norik botatzen duen txupinazoa. Soilik esku bat ikustea nahi nuen, hori baita jaien hasiera.

Nondik datorkizu marrazteko zaletasuna?

Oso txikitatik datorkit. Nire aita aro-tza zen, eta etxean marrazten ikusten nuen. Gaur egun marrazten dut, ez da nire ogibidea, baina nire lanarekin agerraldiak egiten ditudanean askotan marrazkiak ateratzen ditut atzealdean. Eraikuntzako arduraduna naiz, langileen arduraduna, eta askotan agerraldiak egitea egokitzen zait lan baldintzak salatzeko. Horiek azaltzeko egin izan ditut marrazkiak. Duela bi urte, gainera, tabletarekin hasi nintzen. Ordura arte arkatzarekin egiten nuen lan, baina erraztasun handiak ematen ditu tabletak.

Kartelena utzia zenuen zaletasun bat da, eta 25 urteren ondoren itzuli zara. Zergatik?

Hasiera batean ez nuen aurkezteko asmorik. Urtero iristen zait txapelketaren berri, eta beti gogoratzen naiz harekin, bere garaian aurkezten nintzelako eta irabazi nuelako. Zure herriko jaiak dira, eta egilea izatea polita da. Seme-alabei aurkezteko esan nien, eta kartel bat nola egin behar den esplikatu nien. Azkenean nik egin nuen, gustatu zitzaidan, eta dudak izan banituen ere, azken momentuan aurkeztu nuen. Deia jaso nuenean lotsa sorrarazi zidan, nire burua beste leku batean jarria dudalako, baina ez dago parte hartzeko adinik. Beharbada 75 urterekin berriro aurkeztuko naiz [barrez]. ■



Mikel del Val

Matteo
JATETXEA

www.amoralpuchero.com
943 49 11 94
667 713 584

lurrita bidea, 2 behea, Ugaldetxo. 20180 Oiartzun
Tel.: 943 49 11 94
info@amoralpuchero.com

Egunero irekita.
Bazkariak 13:00etatik aurrera.
Taberna 11:00etan irekitzen dugu.

KIRIKOKETA

gozau dakizun bezala! Aialde, 1. Oiartzun
943 26 07 78

elizalde

HERRI ESKOLAK XANIXTEBAN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!

EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
www.elizalde.eus
https://elizaldebi.hezkuntza.net
Manuel Lekuona, 5 - Oiartzun
HH-LH: 943 89 93 92 - DBH: 943 89 92 83

Jaietan, jan goxo!

JANGO XO
etxeko janaria

Astelehenetik igandera: goizez egunero 10etatik 14ak arte
Martintxo kalea 1. Altzibar, Oiartzun. Tel.: 668 52 38 40



Abuztuaren 4an izango da bazkari begano feminista. Olaia Gerendiain.

Egitaraua morez azpimarratzen denean

Oiartzungo Feministen Asanbladak egitarau feminista antolatu du xanistebanetarako. Bost zita jarri dituzte, baina egunik potenteena abuztuaren 4koa izango da.

ERIK GARTZIA EGAÑA

Oiartzungo Feministen Asanbladak prest du xanistebanetako egitarau propioa. Azken urteetan bezala, ekitaldiak antolatu dituzte, ikuspegi feministarekin. Bost antolatu dituzte, hiru egunean banatuta, eta, ohi

bezala, egunik indartsuena abuztuaren 4koa izango da. Xanistebanetako igandea, beraz, gorriz markatuta egon beharrean morez azpimarratuta egongo da egutegian.

Lehenengo zita xanistebanak hasi

baino ordu erdi lehenago jarri dute. Suziria bota baino lehen, 18:30ean, elkartuko dira. Azken urteetan bezala, agerraldia antolatu dute herriko plaza nagusian, argi uzteko feministak prest daudela festarako, baina baita ere guttien gozagarri izateko, inolako eraso edo bestelako jarrera matxistarik gabe.

Xanistebanen erdialdean geratzen den eguna izango da tonalitate morena izango duena, ekitaldiei dagokionez. Egun horretarako dei egin diete Oiartzungo feministei elkarrekin bazkaltzera, orduan izango baita Bazkari Begano Feminista. 14:30ean hasiko dira jaten, Zimitiyoko txosnan. Sarrerak salgai daude, Garmendi txokolategian. Bazkarira joateko txartel arruntak 15 euroko prezioa izango du, eta 12 eurokoa langabe eta adingabeena. Menua beganoa izango da, aurreko urteetan bezala, bi aldarrikapenek —feminismoak eta antiespezismoak— eskua elkarri emango diote xanistebanetako bazkari horretan. Toki berean, platerak kartoiei toki egingo diete mahaietan, Bingo Drag Musikala antolatu dute sabela bete ondorenerako. 17:00etan hasiko da.

Zortea alde dutenek lerroak osatu ondoren, drag ikuskizun baterako txanda izango da. Madalensora jaitziko dira, txosnak jarriko dituzten to-

Jai zoriontsuak!

OIARTZUN
EDERGINTZA

26 urte zuekin!

Santusene kalea, 5. Oiartzun.
Tel.: 943 49 39 81

sagardotegia
BALEIO
sagardo naturala

Urte osoan zehar sagardo botilen salmenta

943 4913 40 - 626 69 30 74
OIARTZUN

kira. 19:00etatik aurrera, hain boladan dagoen bikotearekin gozatzeko aukera izango dute: Albina Stardust eta Divina Comedia igoko dira txosnaguneko oholtzara.

Egitarauko azkeneko ekitaldia azken egunerako utzi dute. Oiarzungo Feministen Asanbladaren ildo da, xanistebanetarako planak antolatzerakoan, eguneko ekitaldiei indar gehiago ematea, programazio orokorreko ekitaldi gehienak gau partean egitera jartzen baitute fokua. Xanistebanak bukatu baino ordu batzuk lehenago, Afrika Bibang kantari bizkaitarrak kontzertua eskainiko du. 19:00etan hasiko da, txosnagunean.

Protokoloa, zehaztuta

Herriko mugimendu feministak, beste behin, txosna jarriko du Madalensoroko plaza librean. Horrez gain, jakinarazi dute antolatu dituzten ekitaldiak irisgarriak izango direla, eta esertzeko aulkiak izango direla, behar duenarentzako.

Bestalde, Fermiñenen arreta eta informazio gunea izango da. Gainera, eraso matxisten aurkako protokoloa landu dute. Bost urrats ditu. Lehenaren arabera, emakumea lagundu behar da, leku lasai batera eramanez eta emakumea bakarrik utzi gabe; konfiantzazko norbait bilatzen saiatu behar da.

Ondoren, laguntzarik behar duen galdetu behar zaio. Erasotua izan bada, mediku arreta behar duen galdetu behar zaio, edo gertaera salatu nahi duen. Emakumearen denborak edo erabakiak errespetatu behar dira



Afrika Bibangek kontzertua emango du abuztuaren 6an. /frikifrik

beti, eta enpatia eta laguntza eskaini behar zaizkio. Bera erantzulea ez dela berretsi behar zaio, eta ez dagoela eraso bat justifikatzen duen ezer.

Protokoloak ere zehazten du zer egin behar den eraso jaso duenak arreta medikua jaso behar baldin badu, edota salaketa jartzea erabakitzen badu. Udaltzaingoaren, tratu txarrak jaso dituzten emakumeei arreta ematen

dieten telefono zerbitzuaren edo gizarte zerbitzuen telefonoak jaso ditu protokoloak (azpiko QRan ikus daitezke). Mugimendu feministaren txosnara hurbil daitezkeela jakinarazi dute. ■



Eraso matxisten kontrako protokolo osoa deskargatzeko, QR kodea eskaneatu.

MARITXU
arrandegia

Ongi pasa xanistebanak!

Donibane kalea 8 - Oiartzun - 943 49 06 43

London
School of languages

INGELES
ETA
FRANTSES
KLASEAK

Ongi pasa jaiak!
Gora xanistebanak!

EROSKI / city

BERTAKO
SUPERMERKATUA

Olalde kalea 4/5
behea.
943 26 03 45
Altzibar.
OIARTZUN

TOLAITA
OSTATUA

Ase arte, ongi pasa xanistebanak!

Rafael Pikabea Hiribidea, 9.
OIARTZUN
Tel: 943 01 47 02



Olaia Gerendiain

PINTXOAK ETA SAGARDOA AZTERGAI

ABUZTUAREN 4AN. Kirolarekin harremana duten hainbat lehiaketa eta txapelketa daude jasota jaien egitarauaren barruan. Baina badira bestelako muskulu eta dastamen-papilak martxan jartzeko aukera ematen dutenak. Horietako bi abuztuaren 4ra eraman ditu Ibergain elkarteak: Inaxio Uharteren omenezko 23. Sagardo Txapelketa egingo dute, eta horrekin batera, Oiartzungo Pintxo Lehiaketa. Biek ala biek Done Eztebe plaza izango dute probaleku, eguerditik bazkalordura arte.



EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.oarsoagenda



Olaia Gerendiain

TXOMIN PERURENAREN OMENEZKOA

ABUZTUAREN 4AN, 10:00ETAN. Oiartzungo txirrindularitza klasikoa, Donostiakoa baino lehenago egingo dute. Aurten Xanistebanetako 76. Txirrindularitza Sariak igande goizez beteko ditu herriko eta inguruko errepideak etorkizuneko txirrindularitzako izarren izerdiarekin (iazkoa da irudia, bukaerakoa). Txomin Perurenaren omenezko lasterketa da, eta aurten bigarren OTXE hartu du antolaketa beregain. Helmuga Done Eztebe plazan izango du probak.



Alaine Aranburu

BAZKARIAK, JATEKO ETA BILTZEKO

BAZKARIAK. Festetan ezinbestekoa da elikatzea. Jatea, agian ohitura osasuntsuak ahaztuz. Oiartzungoetan horretarako aukera asko daude, eta gainera, elkar biltzeko bokazioa dute. Feministena eta adinekoena abuztuaren 4an izango dira, gazteena 5ean, eta ez hain gazteen arume jatea, 6an (irudian, iazkoa).



Puro Relajo

URKABE ALOKAIURUAK
ETXEBIZITZAK
LOKALAK
SALMENTAK
higiezin agentzia
Aialde, 3 - OIARTZUN - Tel.: 747 426 211 - urkabeinmo@urkabe.eus

KABI IXO taberna
Mila esker kabi txiki honetan bidea egiten laguntzen gaituzuen gustioi.
Errazioak
Ogitartekoak
Entsaladak
Plater konbinatuak
Sandwichak
Hanbursesak
943-494256
Buskal Herria plaza
www.kabixotaberna.com

GARMENDIA ITURTXOKO S.L.
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
ELORRONDO 1, BEHEA
OIARTZUN
943 49 44 36 - 639 37 39 98
WWW.GARMENDIAITURTXOKO.EUS
giturtxoko@gmail.com

NAFAR MARIATXIAK, NONGOAK BESTELA

ABUZTUAREN 6AN, 23:30EAN. Askotarikoa da xanistebanen barruko musika eskaintza. Indarrez ari diren herriko taldeen emanaldiak ere ez dira faltako. Baina jaietako azken ekitaldiak festen zurruntlotik lasaitzen hasteko balioko du, Puro Relajo mariatxi nafarrek itxiko duelako egitaraua.

Oiartzo IKASTOLA
etorkizunerako bidelagun

**Gora Xanistebanak!
Eta biba zuek,
gazteak!**

www.oiartzoikastola.eus



maitane zubizarreta
arkupe
hortz klinika

periodontzia
inplantologia
kirurgia
protesia
ortodontzia
ortopantografia

Kontzejupe plaza, 7 • 20180 Oiartzun • 943 57 39 23

Takalo

**Egurrezko Labean
Egindako Janariak**

Rafael Pikabea 50, Oiartzun
Tel.: 943 49 25 85 / 640 08 08 72

IPARBUS

943 49 18 01
www.iparbus.com

Sasi
loradenda
943 94 34 94
657 70 51 91

Martintxo 1, behea - Altzibar
20180 OIARTZUN

itturri
Oiartzungo Merkatarien Elkarte

Dendaria bazara,
batu zaitetz elkartera:
itturri@itturri.eus

nikoiartzunen.eus
itturri.eus

enara
oiartzungo banaketa zerbitzua